d) Kontseiluko bilkurak behar bezala egiteko behar diren agiriak prestatuko ditu.

e) Ziurtagiriak egingo ditu.

f) Idazkari lanari dagozkion bestelako eginkizunak egingo ditu".

Bigarrena. Diputatuen Kontseiluaren urriaren 24ko 70/06 Foru Dekretuaren II. eranskinaren 3. artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

«3. artikulua.-

Lehendakaria: Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua.

Lehendakariordea: Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuaren burua.

Kideak:

- Eskola Kirolaren arloko ardura duen Kirol Zerbitzuko teknikaria.

- Denon Eskola elkartearen ordezkaria.
- Ikastolen Federaziaren ordezkaria.
- FAPACNEren ordezkaria.
- Elkarturik ez dauden ikastetxeen ordezkaria.
- Vitoria-Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- EUDELen ordezkaria (Arabako udalen ordezkaritzan, betiere, Vitoria-Gasteizkoa alde batera utzita).
- Eskola Kiroleko Kanpainan izena eman duten federazioen ordezkaria.
- Eskola Kiroleko Kanpainan izena eman duten kluben ordezkaria".

Hirugarrena. Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 29a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.– Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria, AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA.

d) Preparar la documentación necesaria para el adecuado desarrollo de las sesiones del Consejo.

e) Expedir certificaciones.

f) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Secretario."

Segundo. Modificar el artículo 3, del Anexo II al Decreto Foral del Consejo de Diputados, nº 70/06, de 24 de octubre, que queda redactado como sigue:

"Artículo 3.-

Presidenta: La Diputada Foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

Vicepresidente: El Director de Euskera, Cultura y Deportes, o persona en quien delegue.

Secretario: El Jefe del Servicio de Deportes del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

Vocales:

- El/La Técnico del Servicio de Deportes encargado del área del Deporte Escolar
- Un/a representante de Denon Eskola
- Un/a representante de la Federación de Ikastolas
- Un/a representante de FAPACNE
- Un/a representante de Colegios no agrupados
- Un/a representante del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
- Un/a representante de EUDEL (en representación de los Ayuntamientos de Álava excluyendo al de Vitoria-Gasteiz)
- Un/a representante de federaciones participantes en la Campaña de Deporte Escolar
- Un/a representante de clubes participantes en la Campaña de Deporte Escolar"

Tercero. Publicar el presente Decreto Foral en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2008.– Diputado General, XABIER AGUIRRE LÓPEZ.– Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI.– Director de Euskera, Cultura y Deportes, AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**5365**

**531/2008 ERABAKIA, uztailaren 29ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Mañuetako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketaren zati batean egindako aldaketari.**

Ekainaren 11ko 320/2008 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Mañuetako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketa zati batean aldatzeari. Udal planeamenduaren arau subsidiarioen SAU-1 sektorea zati batean aldatzearekin bat etorriz aldatu zen hiri lurzoruaren mugaketa. Aldaketa ondokoan datza: batetik, bizitegitarako eta upategietarako hiri lurzorua ugaritzean eta, bestetik, upategitarako lurzoru urbanizagarriaren kalifikazioa duen sektore bat lurzoru urbanizaezin bihurtzean. Azken hori abuztuaren 4ko 689/2006 Foru Agindu bidez onartu zen.

Aipatutako arauaren xedapen zatiko 4. artikuluan, Mañuetako Udalari haren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2008ko ekainaren 12an bete zen eta udalak 2008ko ekainaren 19an jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duenak, 11. artikuluaren 4. paragrafoan udalari hamabost egun aitortzen dizkio egoki deritzona jakinaraz dezan.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**5365**

**ACUERDO 531/2008, del Consejo de Diputados de 29 de julio, que aprueba definitivamente la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo Urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del término municipal de Baños de Ebro.**

Por Orden Foral nº 320/2008, de 11 de junio, se aprobó con carácter provisional, la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Baños de Ebro. La mencionada Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano se realizó de conformidad a la Modificación Parcial de las Normas Subsidiarias de Planeamiento relativa al sector de suelo urbanizable 1, y consistente por un lado en la ampliación de suelo urbano residencial y de bodegas, y por otro en la supresión de un sector de suelo calificado de urbanizable de bodegas para pasarlo a la consideración de suelo no urbanizable, aprobada por Orden Foral nº 689/2006, de 4 de agosto.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Baños de Ebro, disposición que se realizó con fecha 12 de junio de 2008, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Baños de Ebro con fecha 19 de junio de 2008.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Ezarritako epea igaro da eta Mañuetako Udalak ez du hartutako erabakiaren aurkako ezer adierazi.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKI DA

Lehenengoa.- Udal planeamenduaren arau subsidiarioen SAU-1 sektorea zati batean aldatzearekin bat etorriz, Ondasun Higiezinen gaineko Zergapeko Mañuetako hiri lurzoru aldatu berriaren mugaketa onartzea. Aldaketa ondokoan datza: batetik, bizitegitarako eta upategietarako hiri lurzorua ugaritzean eta, bestetik, upategitarako lurzoru urbanizagarriaren kalifikazioa duen sektore bat lurzoru urbanizaezin bihurtzean. Azken hori abuztuaren 4ko 689/2006 Foru Agindu bidez onartu zen.

Bigarrena.- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 2. artikuluaren b) idatz-zatiaren 1., 2. eta 3. puntuetan xedatutakoa herriguneetatik kanpo hiri ondasun higiezinek hartutako lurzoruei dagokienez.

Hirugarrena.- Honako erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai eta lurralde historikoan egunkari salduenetan ere. Gainera, hamabost egunez jarriko da jendaurrean, interesdun orok egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Izan ere, Mañuetako Udaleko bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluaren 5. paragrafoan eta berau garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 29a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Habiendo transcurrido el plazo establecido, el Ayuntamiento de Baños de Ebro no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO

Primero.- Aprobar la Modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Baños de Ebro, de conformidad con la Modificación Parcial de las Normas Subsidiarias de Planeamiento relativa al sector de suelo urbanizable 1, y consistente por un lado en la ampliación de suelo urbano residencial y de bodegas, y por otro en la supresión de un sector de suelo calificado de urbanizable de bodegas para pasarlo a la consideración de suelo no urbanizable, aprobada por Orden Foral nº 689/2006, de 4 de agosto.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el Boletín del Territorio Histórico de Álava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Baños de Ebro, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2008.– Diputado General, XABIER AGIRRE LOPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## Iragarkiak

### HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

**5358**

**Arabako Foru Aldundiaren linea erregular hurbilenera bidaiariak garraiatzeko, eskatu eta berehalako zerbitzurako lehiaketa irekia.**

1. ERAKUNDE ESLEITZAILEA:

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia. Herrilan eta Garraio Saila. Herrilan eta Garraio Zuzendaritza. Garraio Zerbitzua.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Herrilan Bulegoa.

c) Espedientearen zenbakia: 08/G-31.

2. KONTRATUAREN XEDEA.

a) Helburuaren deskribapena: Arabako Foru Aldundiaren linea erregular hurbilenera bidaiariak garraiatzeko, eskatu eta berehalako zerbitzua.

b) Loteak eta zenbakiak: ez.

c) Gauzatzeko tokia: Araba.

d) Gauzatzeko epea: 2009ko abenduaren 31 arte.

3. TRAMITAZIOA, PROZEDURA ETA ADJUDIKATZEKO ERA.

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: irekia.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

Zenbatekoa guztira: 346.422,44 euro gehi 24.249,57 euro (BEZaren % 7), hots, guztira: 370.672,01 euro (BEZa barne).

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

**5358**

**Licitación procedimiento Abierto para el "Servicio de Transporte a la Demanda para el acercamiento de los viajeros a la parada más próxima de la línea regular titularidad de la Diputación Foral de Álava".**

1. ENTIDAD ADJUDICADORA:

a) Organismo: Diputación Foral de Álava. Departamento de Obras Públicas y Transportes. Dirección de Obras Públicas y Transportes. Servicio de Transportes.

b) Dependencia que tramita el expediente: Negociado de Obras Públicas.

c) Número de expediente: 08/G-31.

2. OBJETO DEL CONTRATO:

a) Descripción del objeto: Servicio de Transporte a la Demanda para el acercamiento de los viajeros a la parada más próxima de la línea regular titularidad de la Diputación Foral de Álava".

b) División por lotes y número: No.

c) Lugar de ejecución: Álava.

d) Plazo de ejecución: Hasta el 31 de diciembre de 2009.

3. TRAMITACIÓN, PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN:

a) Tramitación: Ordinaria.

b) Procedimiento: Abierto.

4. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN:

Importe total: de 346.422,44 € más 24.249,57 € (7 % IVA), lo que hace un total de 370.672,01 € (IVA incluido)